

ASKI DA!

PREKARITEAK HIL EGITEN DU!

OSTEGUNEAN DENOK BILBORA!

2020 hasiberrian 11 hildako jasan ditugu Euskal Herriko lantokietan eta bi lankide desagertuta dauzkagu Zaldibarko luizian. Instituzioetako arduradunen atsekabe eta elkartasun hitzekin nekatuta gaude, ekintzarako garaia da.

Behin-behinekotasunak hil egiten du. Azpikontratazioak hil egiten du. Prebentziorako neurririk ez izateak hil egiten du. Diru-goseak hil egiten du, langileen aurka prekaritatea darabilen patronal aseezina da honen erantzulea eta patronal honekin erabat lerrokatuta dagoen Eusko Jaurlaritzaren konplizea.

Zaldibarren gertatutakoa argigarria da oso. Bertan aritu izan diren langileak urteetan arriskupean jarriak izan dira kaltegarriak diren substantzietara esposatuz, babesik gabe. Luizian lanera joandako langileei ez zieten amiantoaren presentziaren informaziorik eman, zabortegean hura pilotzen ari zirela jakin arren. Helburu bakarra autopista irekitzea izan da, ikuspegi ekonomizista berriz gailenduz. Lehentasunezkoa da langile biak aurkitzea, baita senide, lankide eta biztanlegoari kudeaketa gardena bermatzea ere.

Eusko Jaurlaritzari egun dauzkan baliabide guztiak prekaritateari aurre egiteko erabil ditzala exijitzen diogu (ikuskaritza, Osalan, ...) eta segituan prekaritatearen aurkako larrialdi-plan bat onar dezala pandemia honi aurre egiteko beharrezko baliabideak lortze aldera. Azken urteetan lanean izan diren hildako guztiak kontuan izanik zenbat zuhurtziagabekeriazko giza hilketa ikerketa ireki ditu Eusko Jaurlaritzak? Trafiko istripuekin, ordea, arrunta den bitartean lan istripuetan ez da egiten. Honek argi erakusten du lehentasun politikoak non diren; bada garaia erakundeek herri honetako langilea den gehiengoaren interesak defendatzen hasteko.

Langileok lantokietan pairatzen dugun egoera salatuzko, lanean istripuak jasan dituzten lankide guztiak oroitzeko, bereziki, momentu honetan lan-istripuen ondorioak jasaten ari diren senide, lagun eta lankide guztiei gure elkartasuna adierazteko, eta erakundeetara politiken aldaketa exijitzeko, ostegun honetan mobilizazioa egingo dugu. **Zatoz!**

OTSAILAREN 13, OSTEGUNA, 18:30
ARRIAGA PLAZA, BILBO

BASTA YA!

LA PRECARIEDAD MATA!

EL JUEVES TODAS Y TODOS A BILBO!

Recién iniciado el año 2020, son ya 11 las personas muertas en el trabajo en Euskal Herria y dos trabajadores permanecen desaparecidos a consecuencia del desprendimiento de tierra ocurrido en el vertedero de Zaldibar. Estamos cansadas y cansados de palabras de condolencia y solidaridad de las instituciones. Es hora de pasar a los hechos.

La temporalidad mata. La subcontratación mata. La falta de medidas de prevención mata. La ansias de enriquecerse mata. La patronal, insaciable, es responsable de todo esto, utilizando la precariedad contra las y los trabajadores; y el Gobierno Vasco es cómplice, alineada como está con la patronal.

Lo ocurrido en Zaldibar es muy aclarador. Las y los trabajadores que han trabajado en el lugar han estado en peligro durante años al permanecer expuestos a diferentes sustancias nocivas, sin ningún tipo de protección. A las y los trabajadores que fueron al lugar del desprendimiento no se les informó de la presencia de amianto, pese a que se tenía conocimiento de que se estaba almacenando esa sustancia. El único objetivo ha sido abrir la autopista, priorizando de nuevo el punto de vista economicista. Es prioritario encontrar a los dos trabajadores, así como garantizar una gestión transparente

a la familia, a las y los compañeros de trabajo y a la ciudadanía.

Exigimos al Gobierno Vasco que utilice todos los instrumentos en su mano para hacer frente a la precariedad (Inspección de Trabajo, Osalan...) y que apruebe de inmediato un plan de emergencia contra la precariedad para poner en marcha los mecanismos necesarios para afrontar esta pandemia. Teniendo en cuenta todas las personas muertas en el trabajo en los últimos años, ¿cuántas investigaciones por homicidio imprudente ha puesto en marcha el Gobierno Vasco? Algo que con los accidentes de tráfico es común, no se lleva a cabo con los accidentes laborales. Esto deja claro dónde residen las prioridades políticas; va siendo hora de que las instituciones empiecen a defender los intereses de las y los trabajadores de este país.

Con el fin de denunciar la situación que sufrimos las y los trabajadores en el trabajo, para recordar a todas y todos los trabajadores que han padecido siniestros laborales, en solidaridad con las familias, amigas y amigos y compañeras y compañeros de trabajo que sufren actualmente las consecuencias de los accidentes laborales, así como para exigir a las instituciones un cambio de políticas, este jueves llamamos a la movilización. **Acude!**

13 DE FEBRERO, JUEVES, 18:30

ARRIAGA PLAZA, BILBO